PLEGU TEKNIKOAK

HABEren C1 azterketaren CEFRrekin lotzeko ekintza planaren kontratazioa

1. Sarrera eta testuingurua

HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea), Eusko Jaurlaritzaren mendekoa, C1 mailako komunikazio gaitasunaren egiaztapena berrikusten ari da. Prozesu honek Europako Erreferentzia Marko Bateratuarekin (MCER/CEFR) lerrokadura indartzea du helburu, ALTE (Association of Language Testers in Europe) erakundeak ezarritako kalitate estandarrak betez.

2025eko otsailean ALTEk egindako auditoretzaren ondoren, Q-Mark zigilua eman zitzaion HABEren C1 azterketari, baina baldintza gisa ezarri zen standard setting prozedura sistematiko eta dokumentatua ezartzea. Horretarako, zerbitzu espezializatu bat kontratatu behar da, prozedura hori modu operatiboan eta dokumentatuan garatzeko.

2. Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea da ekintza plan operatibo bat garatzea eta ezartzea, HABEren C1 azterketaren lau gaitasunetan (irakurmena, entzumen, idazmena eta ahozkoa) puntuazioak ezarri eta baliozkotzeko, CEFR C1 mailarekin bat etorriz.

3. Zerbitzuaren helburuak

3.1 Helburu orokorra

Azterketan ebaluatzen diren hizkuntza-gaitasun bakoitzerako puntuazioak zehaztasunez definitu eta balidatzea ahalbidetuko duen plan operatibo bat garatzea; CEFR C1 mailarako estandarrak islatuz, eta horien baliagarritasuna, ekitatea eta gardentasuna bermatuz ebaluazio-prozesu osoan zehar. Hau da, plan operatibo bat egitea HABEren C1eko lau trebetasunetan (mintzamena, entzumena, idazmena eta irakurmena) ariketa bat gai den erabakitzeko irizpideak langaren definizioa) aztertu eta arrazoitzeko eta puntuazioaren analisia emateko. Dokumentazio tekniko zehatza aurkeztu behar dute langa-finkatze prozedurari buruz, erabilitako metodologia, parte-hartzaile adituen profilak, erabiltzen diren estandarren justifikazioa eta emaitzen egonkortasun estatistikoa zehaztuz.

3.2 Helburu zehatzak

- Kalifikazio sistemaren koherentzia eta gardentasuna bermatzea, ebaluazio irizpideak eta eskalak berrikusiz eta eguneratuz.

- Standard setting metodologiak lau gaitasunetara egokitzea eta aplikatzea.

- Aditu talde kualifikatu bat hautatzea eta prestakuntza espezializatua eskaintzea.

- Standard setting saio operatiboak diseinatzea eta gauzatzea, benetako datuak erabiliz.

- Ezartzen diren barreren baliozkotasun eta egonkortasun estatistikoa aztertzea analisi psikometrikoen bidez.

- Dokumentazio tekniko eta operatibo guztia sortzea, Q-Mark eta CEFR Manualaren eskakizunak betez.

- Prozesuaren jarraipena, adituen lana eta gardentasuna errazteko plataforma digital bat garatzea.

- Emaitzen txosten bat egitea, CEFRrekin lotura justifikatuz eta ALTEri aurkezteko prest egongo dena.

4. Gauzatzeko epea

Zerbitzua gauzatzeko gehienezko epea 7 hilabetekoa izango da kontratua sinatzen denetik aurrera. Izan ere, ALTEren aurrean 2026ko iraila baino lehen aurkeztu behar da txostena.

5. Aurrekontua

Kontratazio honetarako aurreikusitako gehienezko aurrekontua 33.880 eurokoa da (BEZ barne).

6. Kontratistaren eskakizunak

- CEFRrekin lerrokatutako ebaluazio proiektuetan esperientzia frogagarria izatea.

- Standard setting metodologiak eta analisi psikometrikoa ezagutzea.

- Nazioarteko estandarrekin bat datorren dokumentazio teknikoa garatzeko gaitasuna izatea.

- Ebaluazio linguistikoan adituak diren taldeak prestatzeko esperientzia izatea.

7. Kaudimen teknikoa

- Lan operatiboa diseinatu eta aurrera eramango duen proiektu-arduradunak euskarazko C1 maila izan beharko du egiaztatuta.

- Proiektu-arduraduna psikometrian espazializazio maila duen pertsona bat izatea. Unibertsitate mailako Prestakuntza duena, hots, unibertsitatean horren gaineko ikerketa lanak eginak dituena edota horren gaineko eskolak emandakoa.

8. Esleipen irizpideak

Eskaintzak 100 puntuko eskalan baloratuko dira, honela banatuta:

8.1 Eskaintza ekonomikoa (49 puntu)

Honako formula aplikatuz baloratuko da.

Lortutako puntuazioa = Eb/E x 49

E= baloratu beharreko eskaintza

Eb= eskaintza baxuena

8.2 Eskaintza teknikoa (51 puntu)

Eskaintza-teknikoaren testua librea izango bada ere, segidakoa baloratuko da:

- Aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoaren definizioa 15 puntu.

- Aurkeztu beharreko dokumentazio operatiboaren definizioa 15 puntu.

- Aurkeztu beharreko azken produktuaren (txostenaren) edukiaren zehaztasuna 15 puntu.

- Kronograma xehetua: 5 puntu

Atal honetako gutxieneko puntuazioa 36ekoa izan behar du.